

HERIOTZA ONA ERABAKI

Bizitzaldia nahita bukatzea ala behartuta bizitzen jarraitzea?

 JENDARTEA / Mikel ZUBIMENDI BERAŠTEGI

Burmuineko tumore oso erasokor baten ondorioz, 29 urteko Brittany Mainard estatubatuarrek bere bizitza amaitzeko modua eta eguna erabaki eta publiko egiteak zirrara eta polemika ekarri dute. Nola hil erabakitzekeo eskubidea, autodeterminazio ideia hori, Europar zertan den eta aldaketa berrien norabidea aztertzen da lerrootan.

Alejandro Aménabarren “Mar adentro” pelikulari esker egin zen ezagun munduan Ramon Sampedroren istorioa. 25 urte-ekin tetraplegiko geratu eta 27 urtez lege guztien kontra gogor egin zuen borroka bere erabakia gauzatu ahal izateko: lasai hil nahi zuen. Azkenean, zianuro potasiko dosi batekin pozoindu-ta hil zen. Norbaitek lagundu zuen. Delitua preskribatu eta zazpi urtera, Ramona Maneiro lagunak aitortu zuen pozoia eskura jarri eta Sampedroren azken hitzak grabatu izana. Hunkipen eta polemika handia eragin zuen Ramon Sampedroren kasuak, eta, beste behin, plaza publikora ekarri zuen norbere borondate librearen errespetua eta nola hil erabakitzekeo eskubidearen inguruko eztabaida. Eutanasia, inori bere buruaz beste egiten laguntzea, lege aldaketak... komunikabideetan eguneroko ogi izan ziren.

Estatu Batuetatik etorri da oraingoan notizia. Brittany Maynard gaztearen kasuak inarrosi egin ditu sentipenak, sutu egin ditu eztabaidak eta, berriz ere, oso emozionala den eta lobby boteretsuek baldintzatzen duten gaia pil-pilean jarri du.

Azaroaren lehenean, bere ama eta senarraren ondoan, musikaz lagundurik, «bakean hil zen» Maynard. Bideo batean hala aurrreratu zuen eta bere erabakia gauzatzeko eutanasia legalizatu-ta ez dagoen Kaliforniatik Oregonera joan zen, Portlandera, hain zuzen. Oregon estatuan eu-

tanasia aktiboa legeztatua ez dagoen arren, sendagile batek lagundu ez badezake ere, min handia duten gaixo terminal baten eskura bere buruaz beste egitekeo bitartekoak jartzea legala da. Antzeko arauak indarrean dira Washington eta Vermont estatuetan, eta Montanan zein Mexiko Berrian jurisprudentzia aldekoa da.

Brittany Maynardek hil aurretik honakoa esan zuen: «Hitzik ez daukat burmuineko tumore honek eragingo zidan heriotza ez sufritzeak nire mina nola arintzen duen adierazteko», eta, kamerari begira, denak duintasunez hiltzeko aukera izango duten mundu baten aldeko desira zabalduz, zera gehitu zuen: «Nire bidaia errazagoa da, aukera hau daukadalako».

Estatu Batuetako eliza ezberdinek, baina, kanpaina gogorra abiatu dute duintasunez hiltzeko eskubidea erraztuko lukeen edozein legedia berriren aurka. Izan ere, elizek eta bizitzaren aldeko lobbiek diotenaren aurka, eztabaida ez da «bizitzaz nekatuta daudenei» edo «sufrimenduzko bizitza bat» bizi dutenei hiltzeko argi berdea ematea. Ezta, kristau dotrina ofizialak dionez, egiazko errukia besteen sufrimendua azken egunera arte konpartitzea, gerta ahala gerta, eta egoera dena delakoa izanda ere. Ez, Maynarden kasua, esperantzarik gabeko sufrimendu jasangaitzarena da, protokolo zorrotz bat jarraitu ostean, pertsonaren borondate libre eta duintasunez hiltzeko eskubidea betetzearena. Kasu horietan, bizitza ez luzatzea legala ala ilegal den gorabehera, soluzio zaila duen eta oso emozio-

nala den arazo baten aurrean gaudela aitortuta, pertsonaren erabakia dago oinarrian: bizi bainoago hil nahi duten pertsonak, nahita bukatzea nahiago dutenak behartuta jarraitzea baino.

Eta ez hori bakarrik. Eutanasia legala den zenbait herrialdetan, Herbehereetan, kasu, kontzeptu berriei bide ematen hasi dira: ez da esperantzarik gabeko sufrimendu jasangaitz bat behar duintasunez hiltzea erabakitzekeo. «Burututako bizitza» kontzeptuan datza ezberdintasuna: beren bizitza bizi eta burutu dela pentsatzen dutenek ez diote zertan «heriotza naturalari» itxaron behar. Beren bizitzekin bukatzeko (laguntzarekin edo laguntzarik gabe) erabakiak hartu eta pausuak eman ditzakete.

Eta ikuspegi berriekin, 2050 urterako Europako populazioaren %40 65 urtetik gorakoa izango dela eta laurogeitaka urtekoen kopurua biderkatuko dela kontutan hartuz, pentsatzekoa da printzipio sendoagoko eta autonomia zein erabakiak bere kabuz hartzeko ohitura handiagoko belaunaldiak eutanasiaren zilegitasuna eta legalizazioa nahitaezko bihurtuko dutela. Eutanasiaren aldeko lobbya, 133.000 kide dituen Herbehereetako NNVE elkarteak buru duena, oso seguru ageri da ideia horren defentsan.

EUROPAKO KASUISTIKAK

Gaur gaurkoz, Europar eutanasia legala den hiru herrialdeak Herbehereak, Belgika eta Luxenburgok dira. Horrez gain, inori bere buruaz beste egitekeo laguntza ematea legala da Herbehereetan eta Luxenburgon, hala

nola Suitzan. Okerrik ezean, badirudi Estatu frantsesa izan daitekeela hurrengo zerrendan, Hollande presidentearen hauteskunde promesa aintzat hartuta, eutanasia lege berri baten inguruko aurrelanak hasiak baitira.

Eutanasia hitzak, etimologikoki, «heriotza ona» esan nahi du. Zentzu horretan, heriotza duin baten ideala nabarmentzen duen arren, egun, esanahi eta klise sozial eta kultural ezberdinen eraginez, zehazgabea eta nabardura berrien beharrendago.

Eutanasia da, labur azalduta, bere buruaren jabe den paziente batek bere borondatez eskaera zehatz eta jarraitua eginda, eta zainketa aringarriek arintzen ez





Azaroaren lehenean bere buruaz beste egiten lagunduta hil zen Brittany Maynardek honela zioen bere bideo-testamentuan: «Hitzik ez daukat burmuineko tumore honek eragingo zidan heriotza ez sufritzeak nire mina nola arindu duen adierazteko. Nire bidaia errazagoa da orain aukera hau daukadalako».

AFP

duten gaixotasun sendagaitz batek eragindako min handia dela medio, profesionalen esku-hartze zuzen eta erabakiorraren bitartez eragindako heriotza. «Heriotza onaren» testuinguruan, suizido lagunduaren figura ere aipatzekoa da. Kasu horretan, pazienteari bere buruaz beste egiteko ezinbesteko bitartekoak (botikak edo bestelako dosi hilgarriak) ematera mugatzen da profesionalaren esku-hartzea.

Azkenaldian, bestalde, berrikuntzak gertatu dira, Belgikan, hain zuzen. Ez adin txikikoei eutanasia aplikatzea ahalbidetuko duen lehen herrialdea izango delako, legez babestuta egongo den lehen herrialdea izango delako baizik.

Herbehereetan 1993tik eutanasia despenalizatuta dagoen arren, 2001 urtetik aurrera da legezkoa. Betebehar zehatzak ditu legez eutanasiatu edo bere buruaz beste egiteko laguntza jaso nahi duenak: Herbehereetan bizi behar du, min jasangaitza izan, sendatzeko esperantzarik ez eta 12 urte baino gehiago, eta eskaera kontziente eta borondatezkoa egin behar du. Gainera, eutanasia egin behar duen sendagilearenaz gain, bigarren sendagile baten oniritzia behar da.

Bestalde, 2003 urtetik aurrera, Eduard Verhagen neonatologoaren eskariz, 12 urtez beherakoei eutanasia praktikatzea baimendu zen Herbehereetan. Horretarako, ez dago lege zeha-

tzik; fiskaltzarekin akordioa batera iristea aski da.

Luxenburgon, 2008 urtetik aurrera, eutanasia eta inori bere buruaz beste egiteko laguntza ematea legezkook dira. Praktika horiek despenalizatzen munduko hirugarren herrialdea izan zen. Datu anekdotiko lege, aipatu daiteke Luxenburgoko Enrike I.a Duke Handiaren boterea mugatzeko lege bat ekarri zuela soinean despenalizazioak. Izan ere, kontzientzia eragozpena aldarrikatuz, Duke Handiak uko egiten zion gobernuaren legea sinatzeari.

Belgikan eutanasia despenalizatu zuen legea 2002 urtetik indarrean dago. Baina Herbehereekin alderatuz, inori bere buruaz beste egiten laguntzea

zigortutako praktika da oraindik ere. Belgikako kasuak baditu azpimarratu behar diren bi berezitasun nabarmen. Alde bate-tik, gaixoa adin nagusikoa edo nerabe emantzipatua izatea (15 urte) eta, bestetik, Belgikako legediak terminalak ez diren gaixoei eutanasia aplikatzea onartzen duela. Horretarako, kanpo presiorik gabe, modu errepikatuan, idatziz eta berak sinatuta, aurretiazko borondatea azaltzen duen testamentua eskatzen da.

Dudarik gabe, adin txikiko bateg eutanasia eskatzea ahalbidetzen duen munduko lehen legedia izateagatik ezaguna da Belgika. Herbehereetan gurasoek eska dezakete adin txikikoaren eutanasia. Belgikan, aldiz, –gurasoen oniritzia behar

bada ere– eskaera egitea adin txikikoari dagokio.

Suitzako egoera aztertzeko da ere. Eutanasia delitu da bertan, baina suizidio lagundua legala da eta ez da ezinbestekoa botika hilgarria emateko sendagileak parte hartzea. Bere buruaz beste egin nahi duen orori laguntzeko hiru boluntario-elkarte daude, inolako interes pertsonal eta ekonomikorik ez dutela ziurtatu ondoren, botika horiek emateko aukera dutenak.

Esan bezala, Estatu frantsesa izan daiteke eutanasia legeztatzen hurrengo. Estatu espainiarrean, berriz, ankerkeria terapeutikoa ekiditzeko eskubidea onartuta badago ere, eta sendagileen esku-hartzea mugatzeko norberaren borondatea berresten duen «testamentu bitala» egin daitekeen arren, heriotzaren prozesuan zein eskubide dauden argituko lukeen legea beharrezkoa da. Kontuan hartu behar da eutanasia aktiboa edo inori bere buruaz beste egiten laguntzea legalizatzeko prozesuak, ezinbestean, zigor kodearen aldaketa sakona eskatuko lukeela.

HERIOTZA TABU, HERIOTZA SAKRATU

Bistan da duintasunez hil nahi duten eta erabateko askatasunean noiz hil erabaki nahi duten pertsonen kopurua eta kezkek gero eta ugariagoak direla. Izan ere, nork ez du inoiz izan hiltzeko gogo? Nork ez du sekula halako sentimendu bat adierazi? Begien bistakoa da, halaber, bizitzaren kulturaren jabea den –edo jabe izan nahi duen– agintaritzak politiko-erlijiosoak heriotza tabu bezala ulertzen duela, sakratua den errealitate baten baitako egin nahi duela, ukiezin, erlijioaren dogmek kolonizatutako lurralde.

Agintaritzak erlijiosoen aurrean amore emanda edo heriotzaren inguruan irakatsi zizkiguten tabuak atzean utzi ezinik, politikariek hain mingarria den egoera honen aurrean ez ikusiarena egiten jarraitzen dute. Agian, ez ditu botoak emango, baina, hobe orain berandu baino, begiak ireki behar dituzte, eta libreki hiltzea eskatzen duten gaixoei beren era-

bakia errespetarazteko bideak erraztu, borondate hori zuzen eta normal bezala ikusi eta, geurea bezalako gizarte laiko eta askotariko batean –hala izan beharko luke bederen–, pertsonari beren bizitzaz erabakitzea eta erabaki hori gauzatzea ahalbidetu. Auto-determinazioaren ideia indartzen duten erabakiei bide eman, nola bizi eta nola hil norberak eta bakarrik norberak erabaki ahal izan eta horri begirune osoa adierazi, ez dago besterik.

Erabakitzeo eskubiderik gabe hitz egin al daiteke heriotza –edo bizitza– duin batez? Bizitza onerako, ongizate iturri izateari uzten dionean, laguntzarekin edo gabe akabera ematea erabakitzea ez al da hizki larrietan idatzitako egiazko duintasun pertsonala? Gizarte aurreratuetan, heriotzaz haragokoari beldurra galdu ahala, balio ez duen oro hiltzeari argi berdea ematea deneko ideia zabalduz, beldurra eragiten dute. Mendeetan zehar infernuak izan duen funtzio berbera ematen diote «aldapa irristakor» horri. Eutanasia osasuntsuak ez diren edo elbarrituak direnen aurkako kondena gisa karikaturizatzen dute aurka daudenek.

Aitzitik, ebidentzia guztiek kontrakoa diote. Eutanasia despenalizatu duten herrialdeak ez dira desegituratu, ez dira despopulatu. Heriotzaren aurrean erabakimen pertsonala erregulatu duten herrialdeak muturreko sufrimendua ekiditen duen «heriotza onera» hurbiltzen dira; dagokionean, bizi-proiektu bat burututa, sufri-mendurik gabe hiltzeko ideia eder horretara.

MEDIKUNTZAN IRAULTZA BAT

Duela gutxi jakin du medikuntzak, zenbait gaixotasunen bilakabidea zuzentzeko orduan, bizitzaldia luzatzea xede zuten baliabide teknikoak modu okerrean erabili direla, ez baitute, gehienetan, heriotzaren prozesua luzatzea besterik lortu. Eutanasia edo heriotza duin bat erabakitzeo eskubidearen inguruko eztabaida puri-purian egonik, esan daiteke, medikuntzan ere ikusmolde berri oso bat garatzen ari dela, nolabaiteko iraultza bat.

Izan ere, gaixoak ez dira soilik sendagileen egitekoaren objektuak, profesionalek lagunduta, beren erabakiak hartzen dituzten subjektu bilakatu direnez. Aldaketa handia da hau. Jardunbide medikoaren soziologia aldatu du eta agerian utzi du sendagileak ezin duela dena sendatu, osasungintzan humanismo berri bat behar dela, funtsaren funtsean gaixotasuna jarri beharrean pazientea jarriko duena.

Ikuspegi berri honen eskutik indartu da medikuntza aringarria, ezinezkoa den sendakuntzan tematu ordez, pertsona gaixoaren bizitzaren akaberan ahalik eta sufrimendu gutxiena eta ahalik eta laguntza eta errespetu gehiena lortzen saiatzen dena. Zentzu honetan, hiltzeko laguntza, izan eutanasia edo suizidio lagundua, medikuntza aringarriaren beste bitarteko bat bezala ulertu daiteke.

Europar, eutanasia eta laguntza medikoarekin buruaz beste egitea onartuta dagoen herrialdeetan ikusten denez, kontrol handiagoa eta hobea ekarri du.

2050 urterako, Europako populazioaren %40 65 urtetik gorakoa izango da eta laurogeitaka urtekoen kopurua biderkatuko da. Horrek eutanasiaren zilegitasuna eta legalizazioaren alde jokatu duela pentsatzekoa da.
HEMERA TECHNOLOGIES/ THINKSTOCK

Medikuntza aringarria exigentzia etikoa da horietan, inork ez dezan heriotza eskatu sufrimendua arintzeko aukerarik ez duelako. Medikuntza aringarria bermatzea ordezkari politikoen betebeharretakoa bat da, ez, beste herrialde batzuetan gertatzen den den bezala, eutanasiaren aurrerapena oztopatzeko aitzakia.

Medikuntza aringarria, hala ere, espezializazio gisa ikusten dutenak badira, pertsona guztietara iristeko garatu behar dena, hazi eta hazi, etengabe hazi behar dena –den-denok, azkarago ala berantago, gaixotasun terminala pairatuko dugula ahaztuta– eta ez da globalagoa den osasungintzako humanismo berri horretan tematu behar. Interes profesional eta ekonomiko asko daude, «merkatu-nitxo» bat bezala ulertzen dutenak ez dira falta.

Medikuntzan gertatzen ari den aldaketak, baina, ez du oraingoz, Estatu espainiarrari gagozkiola, lege mailako gauza penik ezagutu. Kontraesan legile nabarmenean segitzen du-

gu: Konstituzioak askatasuna eta norbanakoen autonomia zuzenbidezko Estatu demokratiko baten zutabe gisa hartzen ditu, eta, bestetik, Zigor Kodeak hiltzeko laguntza eskatzen (edo ematen) dutenak zigortzen segitzen du. Honek guztiak erakusten du pertsonaren eskubidea izan beharko lukeenak bahiturik segitzen duela.

Eta eskubideez ari garela, jakin badakigu, borrokan jardun gabe ez direla eskuratzen eta, behin eskuratuta, defendatzen ez badira, galdu egiten direla. Jendeak XXI. mendeko oinarritzko eskubide honen alde egitea ezinbestekoa da. Gure-gurea den askatasun indibidual batez ari gara, oraindik preso daukatena, hain zuzen, gure bizitzaren amaiera guk geuk zuzentzeko eskubideaz. Zenbat eta borondate gehiago bildu aldarrikapen publiko honetara, orduan eta azkarago eskuratuko dugu.

Erabakitzeo eskubidea dago jokoan, autodeterminazioaren ideia bat. Azken buruan, askatasun kontua da: gauden egoeran gaudela, daukagunarekin, ahal duguna, nahi duguna egitea.

